

## UDAL MOZIOA

## ESKOLHARRIA BIHARKO HERRIA! MAIATZAK 22

Hernaniko Udala	
SARRERA	
2016 APL. 01	
Zkia:	1438
Atala:	ALKATZEDUA
KOPIA: IDA EKARIBEA	

25 urte bete dira SORTZEN mugimendua Hernanin sortu zenetik. Mende laurdena, Euskal Eskola Publiko berrirantz urratsak ematen, helburu bera duten ikastetxe eta eragileekin elkarlanean.

Eta Hernanira etorri gara berriz ere gure urteurrena ospatzeko asmoz, ez dugu festa erraldoi bat egin nahi, gure tamainako zerbait antolatu nahi dugu. Gure helburua, SORTZEN elkarteak ordezkatzeko duen proiektua ezagutarazi eta lau haizetara zabaltzea da. Hernani, gure proiektuaren erakusleio bihurtuz.

Maiatzaren 22a beraz, Aldarrikapenerako, gure proiektua ezagutarazteko, eta nahi eta behar dugun eskola publiko berria irudikatze eguna izatea da gure asmoa. Eta horretarako bidea egiten ari gara. Bidarri horretan hainbat hitzaldi eta mahainguru antolatu ditugu ESKOLHARRIA BIHARKO HERRIA lelopean.

Gure bazkide diren Langile ikastola, Astigarragako Herri eskola, Arantzazuko ama ikastola eta Aitor ikastolarekin elkarlanean ari gara ekimen guzti hauek aurrera ateratzeko.

Hernaniko herriari antolatuko ditugun ekimenetan parte hartzeko gonbitea luzatu nahi diogu, eta honako mozioa aurkezten dugu udal osoko bilkurak eztabaida eta onar dezan:

- Udalak, dituen bitarteko komunikatiboak erabiliz, SORTZEN elkarteak antolatuko dituen ekimenen berri emango dio Hernaniko herriari.
- Udal honek, ESKOLHARRIA BIHARKO HERRIA lelopean SORTZEN elkarteak antolatuko duen aldarri egunaren egitaraua osatzen eta zabaltzen lagunduko du.
- Udal honi, SORTZEN elkarte euskal eskola publikoaren eraikuntza prozesuan egiten ari den lana aintzat hartuz, egunaren antolaketa ekarriko dituen gastuei aurre egiten laguntzea eskatzen diogu.

*\*Hitzaldi eta mahai inguruen egitaraua eta gure aldarri egunaren eskema nagusia eranskin gisa aurkezten dizuegu.*

SORTZEN ELKARTEA

IFK: G20764445

Andoainen, 2016ko martxoaren 21a

Honre manetarako: Bepo Bitorika  
(659494079)

